

ORION

Sanpedroak udan eta San Nikolas neguan. Horiiek dira Orioko herriko jaiak. Bietan ere jendea erruz ibiltzen da, oraingo hauetan kanpotik ere nahikoa etortzen delako eta negukoetan beste inon jairik ez den garaian direlako. Aurtengo Sanpedroak atzo iluntzean hasi ziren, eta etzi bukatuko dira. Izango da tartean farre algara eta mozkorra franko. Jai da.



Jendearen partehartzea helburu duten jaiak

JOXANJEL AIDAI / ORIO

Aurtengo jaiak aurreko urteetakoek izan duten antzeko itxura dute. Ez dago jai ekitaldien artean besteen gainetik gehiegi nabarmentzen den ezer. Antolatzaileek azaldu digutenez «egitarauak berdintsu erantzuten die batzuen eta besteentzako gustoei». Udala arduratzen da jaiak bere osotasunean antolatzeaz, baina aparteko gazte talde batek hartzen du bere gain koadrilen egunaren antolaketa eta gazteentzako prestatzen diren beste ekitaldien ardura. Gero programa ofizialari erantzen diote prestatua eta biak bat eginda kaleratzen dira. Hori aurrera ateratzeko aurtun 300.000 pezetako laguntza eman die Udalak gazteei. Diru pixka hori ematen Udala oso berandu ibili dela kexatu dira.

Beste herri gehienetan halatsu gertatzen da, eta Orion ere diru kontuek eragiten dute makina bat zeresan. Udalak urteko jai guztien artean banatzeko diru kopurua jartzen du eta neguko eta hauen artean banatu behar denez ez zaie diru gehiegi tokatzen. Aurtengo Sanpedroak 4.600.000 pezetako aurrekontua izan dute. Diru banaketan asko ez dute eragin, baina azken urteotan Orioko auzoetako jaiak ugaltu egin dira. Horietan goz hartzen dute kalea auzo ba-

koitzeko biztanleek, eta nekez ikusten da hainbesteko gogoia herriko jaietan. Antolatzaileen

**Txuuuuuu, txu, txu,
txu, txutxu**

Aurtengo sanpedroek erakusketak berezia ikusteko aukera ere eskainiko dute. Trenaren museoa deritzona udaletxeko batzar aretoan ikusgai bait dago. EEEko tren eta trenbideen inguruko gauzak erakustea du helburu erakusketak. Besteak beste, hor izango dira EEEko hamabi tren —txikiak—. Bonn eta Baden Baden hiriak —zer esanik ez—, 160 metro trenbide, laurogei automobil, kamioi, moto, bizikleta, 100 kale argi, berrogeitamar etxe, eta abar.

esanetan, «ugaltzarekin batera jai gutxi zirenean izaten zen irrika ere galdu egin da».

Gazte jendea nahikoa kexatu

izan da, azken urteetan eta aurtun, «jaien egitarau oso aberatsa ez delako eta berrikuntza gutxi duelako». Hori egia ere bada, baina antolatzaileak ere nahiko kexu agertu dira «jaiak gazteak egin behar dituelako, eta prestatuz lanetara egindako deialdiek nahikoa erantzun eskasa izan dutelako». Kontuak kontu, azken urteetako Sanpedroetan behera egin du jendearen partehartzeak.

Jaietan jende ugari ibiltzen, besteak beste kanpokotik ere garai honetan Oriora jende asko etortzen delako, baina gutxi hartzen dute parte.

Sardinajana ibiltaria

J.A. / ORIO

Orioko Udalak egiten duen jai egitarauari gazteek propio koadrilen egunerako prestatzen dutena erantzen diote urtero. Koadrilen egun hori larunbata izan ohi da. Aurtun ordea gaur da San Pedro eguna, larunbata, eta biak bat egitea erabaki dute.

Goizeko hamaika t'erdietan sardinajana ibiltaria deitzen dutena egingo da. Arratsaldeko sei t'erdietan koadrilen arteko batel estropada. Sei talde aurkeztu dira eta astean zehar entrenatzen ere jardun dira, nahiz jakina izan, berez Orioko denak estropadarako entrenatu beharrik ez duela. 21.30etan koadrilen afaria frontoian, eta goizeko ordubatean 'play back' lehiaketa egitekoa zen baina apunterik ez du inork eman eta ziurra ez da egingo.

Astelehenean, koadrilen egunetik kanpoko ekintza izan arren, saskibaloitako partida latza jokatu dute. Bi talde handi neurtuko dira, garai batean Orioko eskola ordézkatzu hainbat lekutan txapeldu izandako nesken taldea —Chocholinas—, eta koadrilen ordézkari gisa azalduko den mutilen taldea —Globe Trotters—.

* * *

Afrikako plaza

«Sardinajana egiten denean Orioko plazak Afrikako plaza dirudi». Ez dira gure hitzak, antolatzaileak batenak baizik. Itsasoko sareak erabiltzeko gurdi handi bati tratorea erantzen diote, gainean parrila, 100 kilo sardina, beste 100 bat botila sagardo eta gurdiaekin herrian bueltaka ibiltzen dira.

Gaur

- ☞ 10.00etan meza nagusia.
- ☞ 11.30etan sardinajana ibiltaria.
- ☞ 18.30etan batel estropada.
- ☞ 19.30etan herri kirolak.
- ☞ 23.00etan su festak.
- ☞ 23.30etan Nervion orkestra.

eta bihar

- ☞ 11.00etan plater tiroketa.
- ☞ 11.30etan bertsolariak.
- ☞ 14.00etan zaharren bazkaria.
- ☞ 17.00etan pilota jaialdia.
- ☞ 19.00etan futbito finalak.
- ☞ 23.30etan Nueva Alaska orkestra.

Egunkaria

Festa on irakurleoi!!

IBARGUREN

MERTZERIA

Lentzeria eta Gizon-emakumeen erropa
Kaia kalea, 9 Tel.: 831557 ORIO

ERTZA


Usaindegia
Zorionak Oriotarrei

Eusko Gudari, 9 Tel.: 830929

LAIARI

IZOZKIAK

Eusko Gudari, 44 Tel.: 13 42 64 ORIO



Kaia kalea, 7
Tfnoa.: 13 17 79

ORIO

Ondartzan
Tfnoa.: 83 39 61

GURE TXOKO

Zorionak opa
dizue

Aritzaga kalea, 2 ORIO

**ERRUSTA
TABERNA**

Aurtun bai
Aupa Orio!!
Aita Lertxundi, 6 ORIO

ANTILLA

JATETXEA
Jai Zoriontsuak opa dizkizue
Abeslari kalea, 2 Tfnoa.: 830750 ORIO

ALONSO ERAIKUNTZARAKO MATERIALA C.B.

- ☞ Keramika edo sukaldeko altzairu erakusketa.
- ☞ Eraikuntzarako materiale mota guztiak.
- ☞ Lanak egiten dira hondeatzeko makina txikiarekin.

HELBIDEA: Erreka auzoa (AIA) Tfnoa.: (943) 13 25 33